

# txintxarri

## Han eta hemen gozatu dute

Adinekoen Omenaldi Aste ederra igaro dute herriko nagusiek; askotariko ekimenetan parte hartu dute / 3

## Palestina eta Libanoren alde

Israelek Gazaren aurkako "genozidioa" hasi eta urtebetera, kalera atera dira lasarteoriarrak, protesta egitera / 9



**Festak ederki ospatu eta gero, datorren urtera arte agurtu dituzte Sasoeta auzoko jaiak / 2**



**0 eta 3 urte bitarteko haur lasarteoriarren irakurzaletasuna bultzatzea dute helburu / 4**



**Altxa Burua Lasarte-Oria taldeak bi bilera ireki egingo ditu Garaikoetxea-Landaberrin / 6**



**Iker Artetxek irabazi du Mirentxuko kantxan jokatu duten banakako trinkete txapelketa / 10**



**Eguzki Bodegas Ayesa taldea gazteen mailako liga borrokatzeko prest dago / 12**





Helduek larunbat arratsaldean astindu zituzten danborrak Sasoeta auzoan barrena, eta, gaztetxoek, berriz, igande goizean, Andatza plazan. TXINTXARRI



# Datorren urtera arte, Sasoeta!

Hiru eguneko jaiak ospatu dituzte auzoan, txupinazotik hasi eta azken trakara arte. Tartean makina bat jarduera aurrera eraman dituzte adin tarte guztientzako herritarrentzat: danborradak, kontzertuak, erraldoi eta buruhandiak, otordu herrikoiak...

## Maitane Aldanondo

Ostiraleko (hilak 4) suziriak piztutako festa giroa igande eguerdian itzali zuten Sasoetan. Azken trakaren aurretik, ordea, ondo pasatzeko aukera izan zuten auzoko festez gozatzerantz bertaratutako herritarrek.

Hiru eguneko jaiak abian jarri zuten Sasoetan suziriak eta Sausatxo elkarteari egindako omenaldiak. Andatza plazan bildu ziren auzotarrak eta herritarrak pregoia entzun eta lehen jardueretan parte hartzeko. Ohi bezala, Uzturre plazan Los Chavales del Martija taldeak antolatutako kirol ekimenak aurrera eraman zituzten: zaku lasterketak, lokotxak, futbol jaurtiketak eta saskibaloikoak. Guztietan saiatzeko aukera izan zuten haur eta gaztetxoek. Bien bitartean, Kilkerband txarangak Andatza plaza girotu zuen eta nahi zute-

nek txokolate beroa eta madalena askaritarako jateko aukera izan zuten. Txaranga kalejiran abiatu zenean, Porto Bello bakarlariak talde britaniar ezagunen abestiak eskaini zituen taberna ondoan. Afaltzeko etenaren ondoren, zezensuzkoa eta The Noisemakers zein Auskalo taldeen txanda izan zen.

## Larunbata, jardueraz betea

Musikaz betetako gauaren ondoren, lehia gogoz jaiki ziren Sasoetan. Haur eta heldu Jaizkibel plazako futbol txapelketan nor baino nor aritu ziren hemezortzi bikote. Hamaiketarako, Extremadura Etxeko migak aukera izan zituzten Gazteleku aurrean. Aldi berean, eraikinaren beste aldetik abiatu ziren LOZETeko erraldoi eta buruhandiak. Musikkak lagunduta plazara iritsi ziren eta han dantzan aritu ziren. Arra-

tsalderako indarrak hartzeko, 120 lagunentzako herri bazkaria egin zuten Andatza plazan; paella eta guakamolea natxoekin jan zuten. Ilundu arteko hitzorduen artean, helduen danborrada auzoan barrena ibili zen eta bestelako musika eskaintza ekarri zuen Radio Rebelde Covers taldeak.

## Agurra, bazkalordurako

Ohi baino laburragoa izan zen jaiaren azken eguna Sasoetan. Arratsaldera heldu beharrean, bazkalordurako agur esan zieten auzotarrek ospakizunei. Hala ere, ez zitzairen ezer falta izan, denbora tarte txikiagoan sartu baitzuten dena: LOZETeko buruhandien kalejira, patata tortilla txapelketa, haurren danborrada, errifon zozketa (zenbaki saridunak Sasoeta Sasoian taldearen Facebook orrialdean ikus ditzakete) eta azken traka.



Sausatxo elkartea omenlari ekin zieten festei. TXINTXARRI



LOZET elkartearen erraldoiak kalejiran ibili ziren. TXINTXARRI



Radio Rebelde Covers taldearen kontzertua. TXINTXARRI





Aurten urrezko ezteiak egin dituzten Biyak Bat egoitzako kideak omendu dituzte. Irudian, Zumaburuko eliza atarian ageri dira. TXINTXARRI



Askotariko jardueretan parte hartu dute herriko adinekoek. TXINTXARRI

## Ezin hobeto igaro dituzte zazpi egunak

Adinekoen Omenaldi Astean murgilduta ibili dira herriko nagusiak. Askotariko jardueraz betetako egitaraua iragarrita, horietako bakoitzean ederki gozatu dutela erakutsi dute. Tartean, aintzatespen egun hunkigarria ere izan dute

### Txintxarri

Ederki ospatu dute Lasarte-Oriako adinekoek euren omenez aurrera eraman duten astea. Bandera igoera egin zuten hilaren leian egoitzan bertan, eta horren ostean etorri ziren gainerako guztiak.

Mahai jokoetan eta bestelako askotariko ekimenetan parte hartu zuten astean zehar, baina, asteburuan, esaterako, ezin hobeto pasa zuten. Hilaren 6an,

adibidez, elizkizunarekin hasi zuten eguna. San Pedro elizan batu ziren sinesdunak, eta hori amaituta, bapo bazkaldu zuten Michel kirol gunean. Ostean, dantzarako tartea ere izan zuten bertan bildutakoek.

### Urrezko ezteiak

Hilaren 8a, berriz, egun berezia izan da; urre kolorekoa, hain zuzen ere, urrezko ezteiak bete dituzten egoitzako kideen egun

handia izan baitzen. Kalejiran joan ziren horiek guztiak egoitzatik Brigitarren komentura. Bertan Felix Garitano kapilauak gidatutako meza entzun, eta aitatespen hunkigarria jaso zuten gero, Biyak Baten; oroigarri sorta jaso zuen bikote bakoitzak.

Egunari amaiera emateko, Herriko Etxean bazkari eder bat egin, eta bertan, DJ Nikoren eskutik gorputzak astintzeko tartea ere izan zuten.

## Adinekoek konpainia egitearen garrantzia

Nagusilan elkarteak ematen duen zerbitzuetako bat da Zilarrezko Haria. Bakarrik dauden pertsonen zuzenduta dago eta ekimen horretan aritzen direnek konpainia egiten diete adinekoek, telefonoaren beste aldetik. Astelehenetik ostegunera arteko ordutegia 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 17:00etara artekoa da, eta, ostiraletakoa, 10:30etik 13:00etara artekoa. Hots egin beharreko zenbakia 900-71 37 71 da. Nagusilaneko kideek jakinarazi dute deitzen dutenei momentuan

telefonoa hartzen ez badute, izen-abizenak eta euren zenbakia utzi behar dituztela erabiltzaileek erantzungailuan.

Hilaren 3an dei maratoi bat egin zuten Donostiako Miramar jauregian: hamabi orduz aritu ziren adineko pertsonekin telefonoz hitz egiten, etenik gabe. Bitartean, mota askotako ekimenak aurrera eramane zituzten. Bertan izan zen Nagusilanen Lasarte-Oriako taldea eta baita zenbait udal ordezkari ere: Agustín Valdivia alkatea eta Gizarte Zerbitzuetako buru Nuria Fernandez.



Nagusilanek gure herrian duen taldea, udal ordezkariekin. MARTIN MUÑOZ





Mestiza elkarteko kideak eta udal ordezkariak egitasmoaren berri ematen. TXINTXARRI

## Lasarte-Oriako haurren irakurzaletasuna xede

Lasarte-Oriako 0 eta 3 urte arteko haurren irakurzaletasuna sustatzeko asmoz, aurten bigarren aldiz aurrera eramango dute Bookstart Euskadi-Gipuzkoa programa. Iaz abiatu zuten egitasmo hori herrian, eta, horri esker, liburu sorta bat jasoko dute haurrek, doan

### Txintxarri

Bookstart Euskadi, Mestiza Elkartek bultzatzen duen programa da, eta familia zein tutoreei zuzenduta dago; Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren, Lasarte-Oriako, Ordiziako eta Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Red Estatal de Promocion Lectora Infantil y Juvenil Leer Transforma sarearen laguntzari esker aurrera eramaten dute.

0 eta 3 urte bitarteko haurren irakurzaletasuna bultzatzea da egitasmoaren helburua, hain zuzen ere, eta arduradunek azaldu bezala, adin tarte horretan garatzen baitituzte umeek euren garapen kognitiboak.

Horren gaineko xehetasunak eman dituzte ekimenaren ordezkariak, eta udalekoek, berriki, eta iragarri dute aurten gozketan haurrek jasoko dituzten liburuak zeintzuk izango diren. Euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko liburu bana eskuratuko dituzte, honako hauek, hurrenez hurren: Ibaizabal argitaletxearen *Lehoitxoa umore txarrez dago*, Abuen-

paso argitaldariko *Hola mi luna*, eta Canizales editorialaren *Winter beast*. Arestian esan bezala, horiek urrik banatuko dituzte.

### Liburu Baby Kluba

Bookstart Euskadi programa doako irakurketa saioekin batera aurrera eramango dute. Saio horiek udal liburutegian izango dira, eta horien helburu nagusia da haurtzaro goiztiarrean literatura, musika, artea eta ingurumenarekiko interesa bultzatzea, beti ere modu ludiko baten bitartez.

Saio horiek ere hiru hizkuntzatan burutuko dituztela azaldu dute arduradunek; euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez izango dira, eta horietan guztietan irakurketari tarte bat eskaintzeaz gain, errimak eta abestiak ere landuko dituzte.

Hilaren 5ean, larunbatarekin, izan zen lehena, eta herriko zenbait familia aritu ziren bertan.. Horietara joateko interesa dutenek Udaleko Gizarte Zerbitzuen bitartez eman dezakete izena. Parte hartze zabalagoa espero dute antolatzaileek.

## Herritarren gozatzea nahi dute merkatariek

Bezeroak mimitzeko kanpaina berri bat martxan jarriko du Aterpea merkatarien elkarteak: 'Gozatu'. Hilaren 14tik 26ra aurrera eramango du, eta horren bitartez, bezeroen fideltasuna sarituko dute. Herritarrak egitasmoarekin bat egitera deitu ditu

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udaleko Sozioekonomia sailarekin, Eusko Jaurlaritzako Turismo arloarekin elkarlanean prestatu du merkatarien elkarteak abiatzeko duen *Gozatu* kanpaina. Horren bitartez, hilaren 14tik 26ra ekimenarekin bate egin duten establezimenduetan erosketak egiten dituzten bezeroek sariak eskuratu ahal izango dituzte.

Erosketa egitearekin batera, urdin koloreko txartel bat jasoko dute herritarrek. Horietako batzuk sari zuzena izango dute, eta besteek, berriz, erosketa bonuen zozketan

parte hartzeko izango dira. Hala, sari zuzenarena egokitzen zaienez, bi mokadutxo jateko saria jasoko dute; txartelak berak zehaztuko die herriko zein tabernatan kontsumitu beharko duten. Gainera, antolatzaileek zehaztu dutenez, taberna bakoitzak erabakiko du zein pintxo eskainiko dizkion saridunari, eta, noski,

**SARI ZUZENA  
LORTZEN DUTENEK  
BINA PINTXO  
IRABAZIKO DITUZTELA  
IRAGARRI DUTE**

tabernan bertan kontsumitu beharko dela ere ohartarazi dute, eta, gaineratu, mokadutxoa, musutruk izango den arren, horrekin batera edatekoa eskatzen dutenek, azken hori ordaindu egin beharko dutela.

Iraungitze data ere izango dute tiket horiek; azaroaren 3a baino lehen erabili beharko dituzte. Hauek dira ekimenarekin bat egingo duten tabernak: Herriko Etxea jatetxea, Arima gastroteka, Viña del mar kafetegia, Buenetxea taberna, Arkupe taberna, La Geselina kafetegia, Hiru Aldeta taberna, Avenida taberna,



Aterpea merkatarien elkarteko kideak kanpainaren aurkezpen agerraldian. TXINTXARRI

Patricio taberna eta El Punto taberna.

Sari zuzena lortzen ez dutenek, bestelako txarteltxoekin zozketan parte hartzeko aukera izango dute. Horiek euren datuekin bete beharko dituzte, eta erosketa egin duten komertzioak izango duen kutxatxo batean botako dute; horrela, erosketa

bonuen zozketan parte hartuko dute. Guztira 1.200 euro banatuko dituztela iragarri dute merkatarien elkarteko ordezkariak.

Herritarrak ekimenean parte hartzera eta herriko komertzioetan kontsumitzera deitu dituzte merkatarien elkarteko kideek eta udal ordezkariak.



Lasarte - Oria 2024

# gozatu!

Urriaren 14tik 26ra, kontsumitu  
Lasarte-Oriako establezimendu hauetan  
**sari bat lor dezakezu!**



Saririk gabeko txartelek  
erosketa-bonuen  
zozketan parte hartuko dute

# 1.200€

Erosketa-bonoetan



LASARTE-ORIA  
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA  
TRATU ON BAT  
UN BUEN TRATO

*Euskadi, auzolana, bien común*



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO



ALBA MODA

MERCERÍA ARITZA

BIDEO LAGUNAK

CLÍNICA DENTAL ALDAZ

NOGUES MODA

ELECTRICIDAD ARREGUI

FERRETERÍA SUKOA

BERME AHOLKULARITZA

MERCERÍA OLMÍ

URRUZOLA MERTZERIA

NOAOA BIDAIK

ÓPTICA LIZARRI

ORBELA EKODENDA

ORMAZABAL LORADENDA

PERFUMERÍA MAIANE

SANTANA INFORMÁTICA

VENTANAS ALCAR

VENTANAS ISU LEIHOAK

ZAPATERÍA ITURBE

OSTEOPATÍA NOELIA CALERO

MULTIÓPTICAS LASARTE

FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA

LOTERÍA IZAGUERRI+C

BERASATEGI KAFEAK

PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA

ADMON. DE FINCAS MILLA

NATURHOUSE

ORUE BOTIKA

PELUQUERÍA MARBELL

LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL

HALCÓN VIAJES

PODOLOGÍA AMAIA OLONDRIS

PELUQUERÍA BEA

DECO 75 TEXTIL HOGAR

INMOBILIARIA RK

ADATS ORRAZTEGIA

ÓPTICA IRIGOYEN

MABEL MODA

BIZKER RÓTULOS

CENTRO DE MASAJE KIMA

CALZADOS LEDER

DULCE TENTACIÓN

IMAGINE JANTZI DENDA

NORTH TEAM NUTRIZIOA

SORAYA GALLEGO MICROPIGMENTACIÓN

PELUQUERÍA MANI'S

ADMINISTRACIONES BARDAJI

HAUNE INTERIORISMO

ZUBIETA MOTOR

GIMNASIO SAITO

PELUQUERÍA Y ESTÉTICA SPLENDOR

TEJIDOS FERNÁNDEZ EHUNAK

AMA YOGA

BOTE TATTOO

FARMACIA ELI LASA

MUEBLES ELBUME

LILURA LIBURUDENDA

ARALAR FISIOTERAPIA

OIHANA ESTETIKA

PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA

**Ehunka pintxo doan taberna hauetan:**

ARKUPE TABERNA

EL PUNTO

CAFÉ-BAR BUENETXEA

RESTAURANTE HERRIKO ETXEA

HIRU ALDETA TABERNA

BAR PATRICIO

ARIMA GASTROTABERNA

LA GELESINA KAFETEGIA

VIÑA DEL MAR KAFETEGIA

AVENIDA TABERNA



# Burua altxatzea, guztion ardura

"Teknologiaren erabilera egokia" bultzatu nahi duten guraso taldeak eratzten ari dira Euskal Herri osoan barrena, Altxa Burua egitasmoaren barruan. Ekimena iritsi da Lasarte-Oriara ere eta ekin dio ikasturte berriari: hilaren 15ean eta 17an bi bilera ireki egingo ditu

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Joan den ikasturte amaieratik lanean ari da Altxa Burua Lasarte-Oria taldea, helburu hauekin: Internetera sarbidea duten gailu elektronikoak egoki erabiltzeko helduak eta gaztetxoak trebatzea; seme-alabei horrelako tresnak ematea atzeratzea; eta eskolak sakelako telefonorik gabeko arnagune bihurtzea. Eragile horretako kide diren Iñigo Suberbiolarekin eta Manu Mendezekin elkartu da TXINTXARRI. Behin baino gehiagotan nabarmendu dute ez daudela sakelakoen eta antzeko gailuak erabiltzearen aurka, baina bai zentzurik gabekoa eta neurrigabea den erabileraren kontra. Norabide horretan, beharrezkoa iruditzen zaie "guztiok" formatzea eta gaiari buruz hausnartzea.

Azaldu dute Landaberri Guraso Elkarteak egin zuela talde eragile bat sortzeko proposamena, eta, esan bezala, iazko kurtso amaieran abian jarri zutela. "Beharlar bertaratu ginen zenbait guraso; datozen aste eta hilabeteetan ziur gehiago izango gara", adierazi du Mendezek. Suberbiolak zehaztu du bi talde sortu dituztela: HH2-LH4 maila arteko seme-alabak dituztenena eta LH5eko ikasleak nahiz nagusiagoak direnena. Datorren astean aurrera eramango dituzte bi bilera, hilaren 15ean eta 17an, Garaikoetxea-Landaberrin, 17:30ean. "Bilkurak zentro horretan izanagatik familia guztiak daude gonbidatuta, bai Sasoea-Zumaburuan haurrak dituztenak bai kanpoko ikastetxeetan dituztenak ere", jakinarazi du Suberbiolak. Gurasoren batek Altxa Burua Lasarte-Oriarekin harremanetan jarri nahiko balu, helbide elektronikoa badute: [lasarte-oria@altxaburua.eus](mailto:lasarte-oria@altxaburua.eus). Gure udalerrikoa

Altxa Burua Lasarte-Oriak prestatu duen deialdi kartela. ALTXA BURUA LASARTE-ORIA

da Gipuzkoako sare zabala (60tik gora talde daude dagoeneko) osatzen duen eragileetako bat.

## Abiatzeko aholkuak

Gaiari heltzeko abiapuntu gisa erabil daitezkeen zenbait neurri jaso dituzte Altxa Buruako kideek. "Gero, hori bai, norberak egokitu beharko ditu etxean duen egoerara". Irizpide hauek aipatu dituzte: etxeko une eta momentuak (otorduak, kasu) errespetatzea; etxeko eremu amankomunetan erabiltzea gai-

lu digitalak; haur eta nerabeei tresna horiek ez ematea asper-tuta daudenean entretenitzeko edota haserre daudenean lasaitzeko; lotara joan baino ordube-te lehenago, gutxienez, sakelako telefonoak eta bestelakoak erabiltzeari uztea; adin tarte bakoitzari dagozkion edukiak kontsumitzea; eta gurasoek erabilera zentzuduna egitea, seme-alabentzat erudugarria izango dena. "Askoz neurri gehiago daude baina hasteko proposak izan daitezke hauek", zehaztu du

## Bi bilera Garaikoetxea-Landaberrin

Landaberri Guraso Elkartearen proposamenari helduta Altxa Burua Lasarte-Oria talde eragilea sortu zuten herriko zenbait gurasok joan den ikasturte bukaeran. Iragarri dute datorren asteko astearte eta ostegunean (hilak 15 eta 17) bilera pare bat egingo dituztela datozen hilabeteetako lanildoari eta beste kontu batzuei buruz hitz egiteko.

### Gai zerrenda

- Ikastolako araudiaren eta kartelaren proposamena.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Osasun sailletara gutunak bidaltzea.
- 2024-2025 ikasturterako konpromisoak finkatzea.
- Merkatarri eta Lasarte-Oriako beste eragile batzuekin lankidetzat.

Altxa Buruako kideek herriko familia guztiak deitu dituzte bileretara, "ezinbestean taldean egin beharreko borroka" dela iruditzen zaielako. **Asteartean egingo dute aurreneko bilera, HH2-LH4 maila arteko haurrak dituztenentzat, 17:30ean, Garaikoetxea-Landaberrin. Bi egun geroago elkartuko dira LH5etik gorako seme-alabak dituzten familiak, eraikin eta ordu berean.**

Mendezek. Horri lotuta, honako hausnarketa egin du: "Gaztetxoek aspertu eta frustratu egin behar dute; egoera horiek gailuen bidez konpontzen saiatzea oso txarra da".

### Ondorio "kaltegarriak"

"Zenbat eta gazteago erabiltzen hasi gailu digitalak, orduan eta arrisku gehiago dute umeek horiekiko menpekotasuna garatu eta ondorio kaltegarriak jasateko", esan du Suberbiolak. Altxa Burua taldean daudenetik irakurri dituzte makina bat ikerketa eta egoera "kezagarria" dela uste dute: eskoletan arreta galtzea, ikaskideen arteko liskarrak eta jazarpen kasuak areagotzea, aurrez aurre komunikatzeko eta enpatia izateko arazoak...

Horren aurrean, zer-nolako neurriak hartu dituzte herriko ikastetxeek? Suberbiolak eta Mendezek azaldu dute Euskal Autonomia Erkidegoa dela gai horren gaineko legediarik ez duen probintzia bakarra: "Ikastetxeei esan diete bakoitzak prestatu eta aplikatu behar duela bere protokoloa". Oriarte Landaberri eraikinean, esaterako, DBH 1 eta 2 mailetan ari diren ikasleek ezin dituzte gailu digitalak eraman eta hori eginda ere euren leihatiletan gorde behar dituzte eskolei ekin aurretik. Zentzu horretan, Suberbiolak adierazi du gainerako erkidegoen irizpide "oso antzekoak" prestatu dituztela hezkuntza zentroek.

Mendezek jakinarazi du Altxa Burua egitasmoa aldarrikapen

eta sentsibilizazio kanpainak aurrera eramaten ari dela. Horietako zenbait martxan jarri dituzte zenbait herritan eta arrakastatsuenak izaten ari direnak besteetara iristen ari dira. Aurretik asmo bat, adibidez, udalerriko merkatariekin eta zenbait eragilerekin elkarlanean hastea da, *Gurea erabil dezakezu* egitasmoa martxan jartzeko. Establezimenduetan lelo hori darman pegatinak jarrita, gaztetxoek jakingo dute bertara joan daitezkeela telefonoz deitzera, adibidez.

Horrez gain, erakundeak inplikatu nahi dituzte eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari idatziak bidaltzea izan da Altxa Buruak proposatutako beste ekimen bat. "Erantzun dute esanez nahikoa informazio badutela eta elkarlanean hasteko prest daudela, gailu elektronikoek eragiten dituzten kalteak osasunarentzat adierazgarriak direlako".

## Ekimenarekin bat egiteko

Formulario hau beteta ere jar daitezke harremanetan herritarrek Altxa Burua Lasarte-Oriarekin:





# Galdera eta erronkaz betetako lehiaketa

Hilaren 14tik azaroaren 3ra arte udalerriko toponimiari buruz ikasteko aukera izango dute herritarrek, era dibertigarri batean: galdera-erantzunak eta argazkiak uztartuko dituen jokia prestatu dute Lasarte-Oriako Udaleko Euskara sailak eta TXINTXARRI aldizkariak

## Txintxarri

Udalerriko ondare preziatuena da toponimiarena edo toki izenena. Horren garrantzia ikusarazteko asmoz elkarlanean ari dira Lasarte-Oriako Udaleko Euskara saila eta TXINTXARRI aldizkaria urte hasieratik eta berriki iragarri dute erakunde-ko nahiz komunikabideko arduradunek zein izango den bide horretako hurrengo urratsa. Hiru asteko (hilaren 14tik azaroaren 3ra arte) beste lehiaketa bat aurrera eramango dute, maiatzean egin zutenarekin konparatuta berrikuntzaren bat edo beste izango duena.

Aurreneko bi asteetan hamar-galderako lehiaketa bana egingo dute. Hirugarrenean, berriz, bestelakoa izango da erronka: toponimo jakin bat aurkitu eta horren argazkia atera eta bidali beharko dute. Zuzena izanez gero, bost puntu gehiago jasoko dituzte sailkapen orokorrean.

Hogei galderatik gehienak asmatu eta hirugarren asteko argazkia ongi bidali dutenen artean nekazal etxe batean as-teburupasa bat zozkatuko dute; parte hartzaile guztien artean, berriz, menu berezi bat bi pertsonarentzat. Animatek eta parte hartu lehiaketan!



Mirentxun aurkeztu dute bigarren lehiaketa. TXINTXARRI

## Parte hartzeko jarraibideak

Lasarte-Oriako toponimiari buruzko hiru asteko lehiaketa bat aurrera eramango dugu.

- **Ez dago denbora mugarik.** Ez izan presarik jokatzeko. Hasten zaretenean nahi adina denbora har dezakezue, hori bai, zabaldutako leihoa ez itxi!
- **Erantzunak, webgunean.** Lehiaketako galdera eta erronken erantzunak *toponimia.lasarte-oria.eus* atari digitalean dituzue eskura. Beraz, sartu webgune horretara eta lasai saltseatu.
- **Gutxienez 18 urte eta partida bakarra jokalaria bakoitzeko.** Lehiaketan parte hartzeko gutxieneko adina 18 urtekoa da eta partaide bakoitzak behin bakarrik jokatu ahaliko du aste bakoitzean, ez gehiagotan.



NEURE KABUZ  
MAITANE REBE

## Isiltasuna ez da bidea

Gisele Pelicoten kasuak eztabaidaren erdigunean jarri du abusu egoeretan dauden emakumeek aurrez aurre duten errealitate zaila. Bere historia pertsonaletik haratago, egoera honek agerian utzi ditu bizi diren eredu sistematikoak.

Sarritan, abusu bat salatzea erabakitzen duten emakumeek inguru etsai bati ere egin behar izaten diote aurre. Sinesgarriak ez izatearen edo estigmatizatuak izatearen beldurra oztopo bihurtzen da, eta emakume asko isilarazten ditu. Zergatik aurkitzen gara erasotzaileen defentsa biktimen babesaren gainetik lehenesten duen testuinguru sozial batean?

Emakumeek beren esperientziei buruz hitz egitean duten sinesgogortasuna abusua normalizatzen jarraitzen duen kulturaren isla da. Askotan, biktimak zalantzan jartzen dituzte, haien istorioak zehatz-mehatz aztertzen dituzte, eta, batzuetan, gertatutakoagatik errua egotzen diete. Birbiktimizazio horrek isiltasun eta bakartze zikloa betikotzen du, eta beldurra bihurtzen da abusuaren zaindari nagusia.

Instituzioen erantzunak ere badute zer esan. Salaketak apatiaz tratatzen dituzte, eta sistema judizialak ez du ematen emakumeak hitz egiterakoan seguru sentitzeko behar duen babesa. Gainera, segurtasun eta justizia sailetan horrelako kasuak kudeatzeko moduari buruzko prestakuntza espezializaturik ez izateak mesfidantza eragiten die biktimei.

Beste aldetik, hedabideek abusu kasuei ematen dieten estaldura sentsazionalista izan ohi da, eta horrek, askotan, emakumeen esperientzien arinkeria ekartzen du. Horrek, pertzepzio publikoari eragiteaz gain, eragin negatiboa ere izan dezake salaketa prozesuan. Komunikabideetan ordezkariak arduratsuagoa eta enpatikoagoa izatea funtsezkoa da emakumeek babesa sentituko duten giroa sustatzeko.

Eguno egoerak eraldaketa sakona eskatzen du. Gizarteak, erakundeek eta hedabideek abusuaren gaiari heltzeko duten modua aldatu behar da. Funtsezkoa da errespetuaren eta entzute aktiboaren kultura sustatzea, non emakumeak entzunak izateaz gain, haien kontakizunak baliozkotuak eta serioak hartuak izango diren.

Justiziaren eta genero berdintasunaren aldeko borroka ez da soilik emakumeen erantzukizuna; gizarte osoa inplikatzeko duen erronka bat da. Biktimei babesa eman eta entzun behar diegu, abusuaren onartzen ez duen eta emakume bakoitzaren ahotsa aldatetarako pausoa izango den ingurua sortzen lagundu behar dugu. Elkarrekin lanean jarraitu behar dugu, emakume guztiak beldurrik gabe eta duintasunez bizi daitezela.

## Merezitako sariak

Juan Mari Apaolaza Estensorok (argazkia, *Sorginak etxera bueltan*) eta Isa Fernandez de Agirrek (argazkia, *ETXEruntz*) jaso dituzte TXINTXARRI-ren udako argazki lehiaketako sariak: Aldikaren saski bat eta Errigora produktuen otar bat, hurrenez hurren. Zorionak bioi, eskerririk asko parte hartzeagatik eta gozatu irabazitakoak!



TXINTXARRI



MÉTODO CORPORAL INTEGRATIVO  
Escuela Malén Cirerol

**DIAFREO  
TALDEAN  
ATE IREKIAK  
URRIAK 16  
11:30-13:00**

- ✓ LUZAKETAK
- ✓ ARNASKETAREN LANKETA
- ✓ GORPUTZ KONZIENTZIA LANDU

GELTOKI KALEA 25  
LASARTE - ORIA  
MAITE IRAZUSTA  
**636585574**



# Emakume sortzaileen II. jardunaldia deitu dute

Iragarn ekainean aurrera eramango duen Ihitten elkarteak Emakume Sortzaileen lehen jardunaldia, eta, bigarrena iragarri dute orain; hiru emakume sortzaile gonbidatu dituztela jakinarazi dute. Antonio Mercero aretoan izango da, hilaren 23an, 18:30ean

## Txintxarri

Emakume Sortzaileen II. Jardunaldia aurrera eramango du Lasarte-Oriako Ihitten elkarteak. *Sorkuntza memoriatik* izenburupean iragarri dute aurtengoa, eta datorren astean izango da, Mercero aretoan, 18:30ean. Aurreratu dutenez, hiru emakume gonbidatu dituzte, Nagore Legarreta argazkilaria, eta Fanny Alonso eta Maialen Porroy Intxausti diseinatzaileak, eta bi lanen berri emango diete bertaratzen direnei, Legarretak *Ibaia ez da toki bat* aurkeztu du, eta Alonsok eta Porroyk, berri, *Kotoi* ezagutaraziko dute.

Aipatu bi lan horiek dokumentalak dira, eta horietan memoria da lan artistikoaren ardatza. Horiek, gainera, agerian utziko dute, besteak beste, garai bateko espazioak, jendearen oroitzapenak eta bizipenak sorkuntzarako lehen-gai ere badirela.



I. jardunaldiko rudi bat. TXINTXARRI

teak. Hizlariak aipatu proiektuak osatzeko izandako esperientzia partekatuko dute entzuleekin, hala nola, ideien hastapenak, bilakaera, hura gauzatzeko bitzako zailtasunak eta pozak eta beste zenbait kontu izango dituzte ahotan. Hori guztia, noski, emakume izatearen begiradatik. Sorkuntza bizi proiektutzat hartzeaz ere arituko dira, eta guztiona den memoria berreskuratzeko, lehenestean eta balioan jartzeaz ere hitz egingo dute.

Elkarte antolatzaileak iragan ekainean antolatu zuen lehen jardunaldia. Orduko hartan ere emakumeak izan ziren gonbidatuak, bost zehazki, hain zuzen ere, hori baita Ihittenen helburua, "emakumeen beharrak eta gabeziak ezagutzea", baita emakume izateak sorkuntza prozesua zeharkatzen duela bistaraztea. Jardunaldien bitartez, gainera, herriko kultur bizitzari euren ekarpena egin nahi diote elkarteko kideek.

## Ikus-entzunezkoen ostean

*Ibaia ez da toki bat* ikus-entzunezkoak gaztelerazko azpidatziak izango ditu, eta *Kotoi*k, aldiz, euskarazkoak. Horik proiektatu eta ikus eta gero, solasaldia egingo dutela iragarri du elkar-

# Ikasturte hasiera eta elkartasun jaialdia iragarri ditu Ernaik

Hilaren 18an aurrera eramango du herriko Ernaik ikasturte honetako aurkezpen agerraldia, Xirimirin

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Ernaik ikasturte honetako aurkezpen ekitaldia aurrera eramango duela iragarri du. Datorren astean izango da hori, hilaren 18an, 19:00etan Xirimiri elkartearen. Herritarrak bertara daitezten dei egin du gazte antolakundeak.

Horren berri emateaz gain, hurrengo egunean, hilaren 19an, Buruntzaldeko Ernaik Andoainean antolatu duen elkartasun jaialdiaren gainean ere informazioa zabaldu du. 2023ko irailaren 22an Aitor eta Galder gazteen espetxeratzeak salatzen bi ekimen burutu zituen aipatu erakundeak, Bilbon eta Gasteizen, eta horietan, 133 kide identifikatu zituzten. Orain, zortzi hilabete geroago, identifikatutako kide guztiei isunak jarri dizkiete, *Mozal legea* aplikatuta. Guztira 290.500 euroko zigorra batzen dute multa horiek guztiek, eta horiek ordaintzen laguntzeko antolatu dute jaialdia.

Egun osoko honoko egitaraua iragarri dute:

**11:00etan, Euskal Herria independentziara, zergatik eta**

*zertarako?* hitzaldia eskainiko dute June Iartzak eta Aritz Lopezek Gaztetxean.

**14:30ean,** bazkaria, Beheko plazan. Eguraldi txarra egingo balu merkatura lekualdatuko lukete ekintza hori. Ostean, bazkaloste musikatu izango da Anuk eta Elene musikariek.

**18:30ean,** Goiko plazatik manifestazioa, Bat eginez independentziara lelopean. Ondoren, trikipoteoa.

**22:00etan,** Ameba, Pertz eta Rebel Noise musika taldeek kontzertuak eskaniko dituzte Gaztetxean. Horiek amaitzean, DJ Fulanak emanaldia eskainiko du.

Bazkarira edota kontzertuetara joan nahi dutenek tiketak erosi beharko dituztela ohartarazi dute antolatzaileek (bazkaria gehi emanaldirako sarrerek 15 euro balio dute, eta soilik kontzertuetara joatekoek 10 euro) Horiek, Lasarte-Orian, Ilargi tabernan eros daitezke.

Herriko Ernaiko kideek herritarrak Andoainera joan daitezten dei egin dute: "Ongietorriak izango zarete denak".



TXINTXARRI

## Ingurumen arazoez jabetzen

Porrotx eta Marimototsek hilaren 5ean herrian egin zuten Ez gara jaitsiko ikuskizunaren emanaldia. Kultur etxeko auditorioa bete zuten familiek sudurgorriekin munduan barrena bidaiatuz natura eta bioaniztasuna babesteak duen garrantziak jabetzeko.

Halako batean, Jalguneko lagunak igo ziren eszenariora. Euskal Herrian Amazonia txiki bat sortzeko nahia dute pailazoek eta zuhaixka bat oparitu zieten, aukeratzen duten herriko txoko batean landa dezaten. Ondoren, hiru kanta elkarrekin dantzatu eta abestu zituzten.



MIREN ETXENAGUSIA

## Musika eskolakoak, Irunen

Irungo Landetxa auzoko Aste Kulturean parte hartu zuten Udal Musika Eskolako irakasle Miren Etxenagusiak eta ikasle Hugo Amilek, hilaren 6an. Beste zenbait partaiderekin euskal kantu jiran aritu ziren bazkalostetik iluntzera arte. Etxenagusiak adierazi duenez, eguraldi txarra ez zen oztopo izan Landetxa kantu, akordeoi doinu eta pandero hotsekin alaitzeko.



# "Erregimen sionista salatzen segi behar dugu"

Palestinari eta Libanori elkartasuna adierazi diete dozenaka herritarrek, Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Ekimenak (LOPHE) deitutako manifestazioan. Kale Nagusian sartzean lurrean etzan dira manifestariak eta 'Txoria txori' abestu du Xumela koruak

## Txintxarri

Hilaren 7an urte bat bete zen Israelek Gazaren aurka "1948ko Nakba-z geroztik burutzen ari den erasoaldi bortitzena" abiatu zuenetik. Hori horrela izanda, aurreko hilabeteetakoak bezalako elkartasun olde bat bidali zieten lasarteoriatarrek, eta baita Libanori ere, estatu sionistak berriki erasotu baitu herrialde hori, eta, besteak beste, Hezbola erakundeko liderra erail, Sayyed Hassan Nasrallah. Manifestariak salatzen zituzten baita ere Zisjordanian bizi direnek pairatzen duten "egunero sufimendua" eta Israelek egindako beste erasoetako bat, Sirian, Iranek bertan duen kontsulatuari.

Okendo plazatik abiatu zen manifestazioa eta Kale Nagusian sartzearekin batera performance moduko bat egin zuten manifestariak. Lurrean etzan ziren eta Palestinako banderak jarri zituzten soinean. Bitartean,

Xumela koruko lagunek Mikel Laboaren *Txoria txori* abesti ezaguna kantatu zuten, bi aldiz. Horren ostean, altxa eta ibilbideari berrekin zioten ekintzan parte hartu zuten dozenaka lasarteoriatarrek. *Palestina, Libano, sarraskia gelditu! Israelen kolonialismoari stop!!!* lelodun afixa eskuetan Ola kalera sartu ziren, Kale Nagusira itzuli eta Tajamarreko biribilgunera joateko gero. Hipodromo etorbidea, Pablo Mutiozabal eta Geltoki kalea ere igaro zituzten Okendora bueltatu aurretik.

## Israel, "harro eta inpunitatez"

Israeli laguntza militar, teknologiko eta ekonomikoa ematen dieten Mendebaldeko herrialdeak ere kritikatu zituzten. "Genozidioari ekin ziotenetik 40.000 lagun baino gehiago hil ditu erregimen sionistak; harro eta inpunitatez jokatzeko du Amerikako Estatu Batuen eta Euro-

paren proiektu geopolitikoa hori delako Ekialde Hurbilean". Ildo horretatik, Eusko Jaurjaritzan agintea duten EAJ eta PSE-EE kritikatu zituzten, defendatzen dutelako "Israelek bere burua defendatzeko duen eskubidea". Sozialistek eta jeltzaleek osatzen duten Lasarte-Oriako udal gobernuaren jarreraren aurka ere hitz egin zuten: "Israelen genozidioa salatzen duen eraman genuen udalbatzarrera eta beto jarri ziguten".

Amaitu aurretik protestan jarraitzeko asmoa eta gogoia adierazi zituzten LOPHEko kideek: "Erregimen sionista salatzen jarraitu behar dugu kalean eta elkartasuna adierazi Palestinako nahiz Libanoko herritarrei. Jerusalem askatu, Palestina askatu eta Israel suntsitu!", aldarrikatu zuten. Halaber, hurrengo asteetan aurrera eramango dituzten ekimenei adi egoteko eskatu zieten bertaratuakoei.



Abiatu eta berehala performance bat egin zuten Kale Nagusian. TXINTXARRI



Hasitako tokian amaitu zuten mobilizazioa, Okendo plazan. TXINTXARRI

## Motorrak piztu, salatzeko

Clasicos Lasarte-Oria elkarteak deituta, 92 auto eta 17 motor klasiko elkartu ziren Hipodromoko aparkalekuan hilaren 6an. Herritarrek ordubete izan zuten haiek ikusi, argazkiak egin eta jabeekin hitz egiteko. Ondoren, motorrak piztu eta Brunet parkeraino joan-etorria egin zuten. Jabeak haserre daude udalak ezabatu egin duelako ibilgailu klasikoaren hobaria eta egoera gizarteratzeko aurrera eramane zuten aipatu ekimen hori.



TXINTXARRI/CLASICOS LASARTE-ORIA





Jokalari, antolatzaile eta babesleek talde argazkia atera zuten amaieran. TXINTXARRI



32 jokalarit ziren nor baino nor gehiago trinketeko kantxan. TXINTXARRI



Okendo plaza 'zaharrari' keinu egin diote aurten. TXINTXARRI

# Herria egiten, tantoz tanto

Ekainean hasitako bidea jarraitu eta banakako frontenis txapelketa aurrera eramán du herriko gazte talde batek Mirentxuko trinketeán, azpiegitura hori biziberritu eta kirola oinarri hartuta belaunaldi gazteen arteko harremana sendotzeko

## Iñigo Gonzalez Sarobe

*Frailea* bilatu eta bilatu aritu ziren jokalaria hilaren 5ean Mirentxuko Trinketeán, baina ez konfesatzera joan eta norberak bere bekatuengatik barkamena eskatzeko. *Fraile* hori ez da hezur eta haragizkoa, harrizkoa baizik: frontisaren eskuinaldean kokatuta dagoena eta pilota bertara jaurtiz gero tanto erdia baino gehiago ziurtatzen diona jokaldi hori egiten duenari. Atzoko txapelketan Iker Artetxe izan zen horretan gehien asmatu zuena, hasi eta buka, eta merezimendu osoz jantzi zituen txapela eta kamiseta gorria, final zirrarragarri batean Joseba Rekondori 22-18 irabazita. Lehiari ekin aurretik bera zen faborito nagusia eta bete egin zituen aurreikuspenak.

Bete egin zena baita ere trinketea bera izan zen. Ekainean egindako binakako txapelketan

ereindakoak fruitu ederrak eman ditu eta Iban Vazquez, Iker Artetxe, Aritz Solano eta Unai Arrutik gidatutako antolatzaile taldeak asmatu du jokalaria (32k parte hartu dute) eta zaleak kirol azpiegitura horretara erakartzen. Nola, eta herria egiten: herritik eta herriarentzako txapelketa bat, herriko belaunaldi gazteen artekoa eta herriko babesleen laguntzarekin: Avenida taberna-jatetxea; Etxezarreta harategia; Ilargi, Trumoi, Txanpa, Andatza, Patricio, Punto eta Escalerilla tabernak; eta Lennon Barber Shop ile apaindegia. Horie guztiei eskerrak eman dizkiete antolatzaileek.

Bigarren txapelketa honetarako kamisetak egin zituzten antolatzaileek. Atzealdean keinu eder bat egin diote Okendo plaza *zaharrari*, 2009koa baino lehenagokoari, herriko belaunaldi askok eta askok bertako

frontoian jokatzen zutenari. Pasa dira urteak, eta, nolakoa den bizitza, garai horietan ume koskorak zirenetako batzuk berriro elkartu ditu kantxa batek, kasu honetan, Mirentxukoak.

## Afaria, giro ederrean

Artetxe eta Rekondoren arteko partidarekin amaitu zen frontenis txapelketa baina horrekin batera hasi zen beste *txapelketa* bat: gauekoa. 60 bat pertsonak izena eman zuten antolatzaileek antolatutako afarian eta giro ederrean joan ziren horiek guztiak Escalerilla jatetxera. Heste-beteak, itsaski entsalada epele edo onddo nahaskia eta entrekota, lupia edo txapiroaiak jan zituzten. Ondoren, postrea, kafeak eta kombinatuak.

Afalostean bakoitzak nahi adina luzatu zuen parranda, nola ez, herrian bertan.



Partidek ikusmina eragin zuten eta zalez bete zen Mirentxu. TXINTXARRI



Aurreneko lau sailkatuak, babesle nagusiekin. TXINTXARRI

## Iker Artetxek irabazi du txapelketa

Txapela eta kamiseta gorria jantzi ditu Iker Artetxek banakako txapelketan. Joseba Rekondo izan da txapeldunordea, Jon Sarasua oriotarra hirugarrena eta Unai Ituarte laugarrena (finalerdian min hartu zuen eta lehiatzeari utzi behar izan zion horregatik).



# Hiru Hiriburuak txapelketa, aurrekari

Intza Pilota Eskolako kide Itxaso Iparragirrek Hiru Hiruburuak txapelketa jokatu du gazteen A mailan. Bilbon jokaturako finalerdian lehiatik kanpo geratu da. Hilaren 19-20an, Errendimendu txapelketa hasiko du eskolako gainerako kideekin batera

## Txintxarri

Hiru Hiruburuak txapelketako finalak jokatu dira hilaren 13an, Gasteizko Ogeta pilotalekuan (Araba). Maila ezberdinetako 68 pilotarik binakako lehia aurrera egiteko borrokatu dute eta horietako bat dugu Intza KEko Itxaso Iparragirre. Lasarte-Oriako pilotari gaztea Oiarpe KEko Maria Balerdi amezketarra izan du kide eta gazteen A mailan lehiatu da.

Lehen hitzordua gainditu zuen bikoak Atano III. pilotalekuan, irailaren 29an. Baina ezin izan zituzten Eider Perez eta Naroa Uriarte gainditu Bilboko Esperantzaz pilotalekuan (Bizkaia) jokatu ziren finalerdietan.

Hala ere, ez du atseden askorik izango gazteak. Lan eta lan dabil, hilaren 19-20ko asteburuan Errendimenduko banakako lehiari egingo baitio Intza KEko gainerako infantil eta alebinekin batera.



Iparragirre (ezker) eta Balerdi. I. IPARRAGIRRE

Aurten Intzako arduradunek aurreratu digutenez, bost gaztetxo izango dira infantil 1. (Jauregi) eta 2. mailan (Iparragirre, Lasa, Lopez eta Maiz) eta bakararra alebin 1. mailan (Jauregi).

Itzuli bakarreko ligaxkan bost jardunaldi jokatu dituzte eta euren multzoko lehen edo biga-

rren sailkatuz gero Gipuzkoako txapelketako bideari ekingo diote. Postu horieran egon ezean, Ekialdeko txapelketan murgilduko dira.

## Zorterik ez

Gipuzkoako Ezker Hormako txapelketako norgehiagoketan ere Intzako pilotariek ez zuten zorte hobirik izan. Bai eskuz binakakoan baita gomazko pilotako lehia ere aurkaria gailendu zen.

Gomazko pilotako jardunaldi hitzordua Loidibarren pilotalekuan jokatu arren, Nagusien 3. mailako bikoak ezin izan zuen Loidibarren pilotalekuan garai-pena erdietsi. Jagoba Mendizabal eta Julen Urruzolak Altzartarra 1 bikotea izan zuen aurrez aurre. Nahiz eta ederki borrokatu 21-25 amaitu zen lehia.

Eta Zumarragan Belokiko bikotea 22-11 nagusitu zen binakako txapelketako partidaren.



Aitor Manso (zuriz), Onil igoerako podiumean. A. MANSO

## Aitor Manso podiumeko bigarren mailara igo da Alacant-en

Herritarrak III. mailako bigarren postua eskuratu du Espainiako txapelketako azkenaurreko proban

## Txintxarri

Aitor Manso herritarrak emaitza ederra lortu du Onil igoeran, Alacant-en. Gidari gazteak III. mailako bigarren postua eskuratu eta kategoriako denborarik onena egin zuen proba lehiatuan. Saillkapen orokorrean Joseba Iraola izan zen garaile eta herriko gidaria laugarren izan zen.

Manso pozarren agertu da hilaren 5ean eta 6an jokaturako lasterketan lortutako postuarekin: "Guztia ondo joan da. Asteburu osoan zehar borroka handia izan da gure mailako lehen lau kotxeen artean eta gutxigatik erabaki da garailea".

Herritarra markak ontzen joan zen larunbatean eta bigarren egu-

na ongi hasteko, bere mailako denborarik onena egin zuen (02.18,642). "Ez genuen espero. Dena eman dugu asteburuan zehar eta marka horrek erakusten du".

Alabaina, garaipenak ihesi egin zion bigarren eguneko saioan. Garailea Jordi Vilardell katalana izan zen eta hirugarren, dagoeneko Espainiako Mendi igoeratako txapelkun den Benito Perez.

Txapelketa lehen postua erabakia dagoen arren, bigarren posturako lehia handia dago eta hilaren 19an eta 20ean Ibizan (Balear Uharteak) erabakiko da podiuma. "Probaren ostean, Espainiako txapelketako hirugarren postuan gaude eta Ibizan bigarren lortzea posible da", adierazi du Mansok.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>OHOREZKO ERREGIONALA</b>
<b>Ostadar SKT - Goierri Gorri FK</b> Larunbata. 16:35. Michelin kirol gunean.
<b>GORENGOEN MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Mariño CD</b> Larunbata. 18:30. Michelin kirol gunean.
<b>ERREGIONAL I. MAILA</b>
<b>Orioko FT B - Texas Lasartearra CF</b> Larunbata. 16:00. Mendibeltz Orion.
<b>Axular KKE B - Ostadar SKT</b> Igandea. 18:00. Puio, Donostian.
<b>OHOREZKO J. M.</b>
<b>Ostadar SKT - Sanpedrotarrak FE</b> Igandea. 13:15. Michelin kirol gunean.
<b>JUBENILEN I. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT C - Martutene KE B</b> Larunbata. 14:40. Michelin kirol gunean.
<b>Ar. Chaminade C - Texas Lasartearra FC B</b> Igandea. 09:00. Felix Garin, Donostian.
<b>OHOREZKO K. M.</b>
<b>Lagun Onak - Ostadar SKT</b> Larunbata. 10:15. Garmendipe, Azpettian.
<b>KADETEEN I. MAILA</b>
<b>Texas Lasartearra CF - St. Tomas Lizeoa B</b>

Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
<b>Umieta KE - Ostadar SKT (neskak)</b> Larunbata. 10:00. Umieta.
<b>Antigua Luberrri KE B - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 10:15. Herrera, Donostian.
<b>Ostadar SKT C - Zarautz KE D</b> Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
<b>INFANTIL HANDI</b>
<b>Real Sociedad SAD - Ostadar SKT</b> Larunbata. 10:30. Zubieta Z4, Donostian.
<b>INFANTIL TXIKI</b>
<b>Ostadar SKT - Hernani CD</b> Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunea.
<b>INFANTILEN I. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Hernani CD</b> Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunea.
<b>Usurbil FT B - Texas Lasartearra CF</b> Larunbata. 09:00. Harane, Usurbilen.
<b>ARETO FUTBOLA</b>
<b>I. MAILA</b>
<b>Eguzki Arkupe Rehabilitaciones - Afanbo FK B</b> Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
<b>III. MAILA</b>
<b>Eibartarrak FT - Eguzki ISU Leihoak</b> Larunbata. 12:00. Eibar Unib., Eibarren.

<b>GAZTEEN MAILA</b>
<b>Anoeta FT - Eguzki Bodegas Ayesa</b> Larunbata. 12:30. Abraham Olano kirol., Anoetan.
<b>KADETE MAILA</b>
<b>Eguzki Goxokis Goxuak - Lauburu Ibarra B</b> Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kirol.
<b>SASKIBOLOIA</b>
<b>J. ERRENDIMENDUA ZILARRA</b>
<b>Alejandro Goya TAKE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 09:00. Usabal kirol., Tolosan.
<b>K. ERRENDIMENDUA URREA</b>
<b>Ostadar SKT - Antigua Luberrri KE</b> Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
<b>K. ERRENDIMENDUA ZILARRA</b>
<b>Bera Bera - Ostadar SKT</b> Igandea. 12:00. Paco Yoldi kirol., Donostian.
<b>BOLEIBOLA</b>
<b>EUSKAL LIGA, II. MAILA</b>
<b>Navarvoley B - Ostadar SKT</b> Igandea. 11:30. Berriozarko kirol., Nafarroan.
<b>PILOTA</b>
<b>ESKUZ BINAKA, NAGUSIAK, 3. MAILA</b>
<b>Intza KE - LAPKE 3</b>

Ostirala. 19:30. Loidibarren pilotalekua.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO MAILA</b>
<b>La Unica RT - Gipuzkoa Sortzen</b> Larunbata. 11:00. UPNA, Iruñea, Nafarroan.
<b>EUSKAL LIGA, I. MAILA</b>
<b>Gipuzkoa Sortzen - Kanpanzar Arrasate</b> Igandea. 11:30. Kote Olaizola miniestadioa, Donostian.
<b>EUSKAL LIGA, II. MAILA</b>
<b>Gipuzkoa Sortzen - Envases RC Rioja</b> Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.
<b>18 ETA 16 URTEZ AZPIKOA</b>
<b>Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Gaur logistica Ordizia RT</b> Igandea. 11:30. Asti, Zarautzen.
<b>16 URTEZ AZPIKOA</b>
<b>Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Labelan Ordizia RT</b> Igandea. 10:00. Asti, Zarautzen.
<b>XAKEA</b>
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>
<b>Taula Xake Klubeko kideak eta</b>

<b>Lasarte-Oriako xake jokalariek maila ezberdinetako Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldia lehiatuko dute.</b> Larunbata eta igandea. Eibar / Irun.
<b>PATINAJEA</b>
<b>II. MAILA</b>
<b>Ximon Villalobos herritarrak abiadurako patinajeko Espainiako Ligako jardunaldia lehiatuko du Tolosako Irristaka taldearekin batera.</b> Larunbata eta igandea. Oleiros, Galizian.
<b>LASTERKETAK</b>
<b>HIRU HONDARTZAK</b>
<b>Herriko korrikalariek Hiru Hondartzetako kroseean parte hartuko dute.</b> Igandea. 10:00. Donostian.
<b>MARTUTENEO KROSA</b>
<b>Lasarte-Oriako lasterkariek zein herriko taldeetako ordezkariak 31. El Pilar - Martutene Jaietako Kroseean egingo dute korrika.</b> Igandea. 10:00. Martutene, Donostian.



# Eguzki Bodegas Ayesa, liga borrokatzeko gogoz

Eguzki Aretto Futbola elkarteko Gazteen mailako taldeak liga lehiatzeko lehen pausoa eman du, Irun Futsal taldea garaitu du. Gazteen mailako egungo txapeldun da eta aurreko denboraldiaren antzera titulua borrokatzeko lehia sartu nahi du taldeak

## Txintxarri

Eguzki Aretto Futbola klubeko Gazteen mailako taldeak denboraldi berriari gogotsu ekin dio. 2023-2024 denboraldian Gipuzkoako txapeldun izan ostean, Francisco Javier Kixki Perezek zuzentzen duen taldeak aurten ere liga borrokatzeko prest dagoela erakutsi nahi du liga erregularran.

Jokalarietan gorabeherak izan dituzte, baina aurten taldearen oinarria mantendu duela azaldu digu entrenatzaileak: "Gure maila urteetan jaiotako gazteekin osatu zen taldea eta ia bigarren urtekoekin irabazi genuen liga. Beraz, aurtengoa euren azken urtea izango da. Bestalde, jokalaririk senior taldeetara igo eta kadete taldea ere dugu atzetik, infantil mailan garaile izandakoak".

Hori horrela izanik, Kixkik ligako lehen postuetan egoteko aukera dutela uste du: "Taldeen egoerarengatik, liga borro-



Eguzki Bodegas Ayesak jokalaria, aurkaria atzean utzi nahian. TXINTXARRI

katzeko aukera dugu. Baina areto futbola nahiko kaotikoa da eta nahiz eta berez hoberena izan, ez duzu garaipena lortzen". Horregatik fase erregularran zehar pausoz pauso joango dira,

hori bai, norgehiagoka guztiak lehiatuko dituzte.

Era berean, gazteen taldearen benetako helburua harrobia lantzea dela nabarmendu du: "Jokalariek prestatzeko maila da gurea eta horretarako egiten



EFF-FVF

## Euskadirekin lanean

Ligako denboraldiarekin batera, areto futboleko Euskadiko selekzioak ere entrenamendu saioak hasi dituzte eta 16 urtez azpiko taldearen deialdia jaso dute Eguzki Aretto Futbol kide Aratz Fuentes eta Markel Rodriguezek. Irailaren 30ean eta hilaren 7an Loiura (Bizkaia) bidaiatu ziren gazteak lan egitera.

dugu lan. Etorkizuneko jokalariek sortzeko".

## Hasiera bikaina

Eta horrela hasi du liga Eguzki Bodegas Ayesak gazteen mailako taldeak; hilaren 5ean Irun Futsal taldearen aurka jokatu zuen Maialen Chourraut kiroldegian.

Kixkik azaldu modura, izaera ezberdinetako bi talderen aurkako partida izan zen: "Gure

taldea osatua eta esperientziaduna da maila honetan. Irungoa, berriz aurten sortutako kluba da eta aurtengoa ikasketa urtea izango da haientzat". Egoera horrelakoa izanik, talde hori beltza nagusi izan zen neurketan eta 16-2 gailendu zen.

Eguzki Arkupe Rehabilitacionen taldeak ere puntua eskuratu zuen Martuteneren aurka. Liga lehen partidara baja askorekin aurkeztu ziren lasarteortarrak. Bi taldeak urduri atera ziren kantxara eta Eguzkik hartu zuen partidaren kontrola. Tamalez, ez zen aurkariaren atea zulatzeke gai izan eta aurkariak egin zuen gola. Markagailuan atzetik joan arren, ez zuen amote eman eta atsedenaldira banako berdinketarekin iritsi ziren.

Bigarren zatiko lehen minutuetan aukerak sortu zituen Eguzkik. Baina neurketa nahastu zen, bi jokaldi jarraian jokalaririk gutxiagorekin jokatu behar izan zuen eta horrek fisikoki eragin zuen taldean. Gainera, lau hiruren aurkako horrietako batean aurreratu zen berriro Martutene. Zorionez jokaldi bakan bat lotu eta Lasarte-Oriako taldeak bina berdindu zuen neurketa. Garaipenaren bila atezain jokalaria atera zuen Eguzkik, baina ezin izan zuen markagailua aldatu.

Taldearen egoera eta neurketa aztertuta ontzat ematen dute Eguzkiko arduradunek berdinketa.

## Gipuzkoa Sortzen taldeek ez dute zorterik izan debutean

18 urtez azpiko Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT taldeak lortu du garaipen bakarra Errioxan

## Txintxarri

Errugbiko denboraldia hasi da eta Beltzak RT, Zarautz RT eta Bera Bera RTk osatutako Gipuzkoa proiektuko taldeak zelaia atera dira. Euskal Ligako lehen jardunaldian. Debutean ez zuten zorterik izan ekimen berriko ordezkariak.

Michelin kirol gunean eman zion hasiera ligari II. mailako taldeak. Lasarte-Oriako zaletuek, beraz, taldearen lehen neurketaz gozatu ahal izan zuten; La Unicako taldea izan zuten aurrez aurre.

Nafarrek hasieratik erakutsi zuten euren nagusitasuna. Jokoa kontrolpean izan zuen Iruñeko taldeak; mele eta touchetan koordinazio handia erakutsi zuen eta fase estatikoetan ere gailendu zen. Ondorioz, 0-29 iritsi ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian nafarrek berdin jarraitu zuten jokoan. Gipuzkoa Sortzenek, aldiz, jokaldiak lotzea lortu eta Iruñeko taldearen entsegu marrara gerturatzen joan ziren. Ahalegin ahalegin, 78. minutuan, esfortzu guztiek fruitua eman zuten eta entsegua



Gipuzkoa Sortzeneko jokalariek, metroak eskuratu nahian. TXINTXARRI

egin zuten etxeko jokalariek, baita gauzatzea ere.

7-57 galdu zuten arren, Gipuzkoa Sortzeneko jokalariek ederriki borrokatu zuten euren lehen

hitzorduan. Taldearen makineria fintzeko dagoela ikusi zen, baina pausoz pauso joango dira. Hilaren 13an, hitzordu berria izango dute Michelin kirol gu-

nean; Envases RC Rioja jasoko du etxeko taldeak.

## Garaipen bakarra

I. mailako taldeak, aldiz, neurketa borrokatua jokatu zuen Donostian. Kote Olaizola zelaian Universidad de Bilbao izan zen aurkaria, 2023-2024ko ligako txapelduna. Nahiz eta etxekoak markagailuan aurreratu (13-0), bizkaitarrek alde murriztu eta azken minutuan garaipena eman gogozien entsegua lortu zuten, 16-19.

Bestalde, 18 eta 16 urtez azpiko Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeak Errioxara egin zuten bidai. Logroñoko Pradoviejo zelaian txanponaren bi aldeak bizi izan zituzten Envases RC Riojako taldeen aurka. Zaharrenak 5-43 gailendu ziren; gazteenek, aldiz, 87-10 galdu zuten.



# Herriko korrikalariak, etenik gabe lehian

Lasarte-Oriako kirolariak zein herriko taldeetako ordezkariak probaz proba dabiltza hitzordu garrantzitsuen denboraldiaren zain. Hondarribi, Donostia, Lazkao, Aretxabaleta edo Nafarroako lasterketetan lehiatu dira azken asteetan

## Txintxarri

Lasterketa herrikoien garaia iritsi da. Hilabete bukaerako Lasarte-Oria Bai! herri krosa edota azaroko Behobia Donostia prestatzen ari dira herriko korrikalariak. Horiek iritsi bitartean hainbat probatan izan dira lehian herriko ordezkariak.

Inmobiliaria Urme Txingudi Korrika 10 K proban, esate baterako, Mari Carmen Olaso herritarra izan zen podiumean. Hilaren 6an jokatu zen Hendaia eta Hondarribia batzen dituen proba. 10 kilometrotako Gipuzkoako txapelketa ere jokoan zegoen eta Olaso lehiaketa horretako hirugarren postuan sailkatu zen; helmugan 49.36 marka egin zuen.

Egun berean, 30 bat herritarren talde bat ere izan zen Donostiako Rural Kutxa Maratoi erdian. 3.000 lasterkari izan ziren eta horietako askok, Lasarte-Oria Trail Mendiko elkarteko (LOTME) kideen laguntza izan zuten euren marka



Mari Carmen Olaso, bigarrena eskuinetik, podiumean. M. C. OLASO

ontzeko; erbi lanak egin zituzten taldeko lasterkari batzuk.

Herritarren artean, Jon Huizi Sagastibeltza (01.25.13) eta Paqui Lopez Piris (01.52.04) izan ziren azkarrenak.

## Done Jakue eta euskara

Nafarroan lehiatutako bi probetan ere izan zen Lasarte-Oria-

ko parte hartzaileak. Batetik Orreaga eta Zubiri Done Jakue bidetik batzen dituen maratoi erdia (21,150 km.) amaitu zuten Fran Toquero (02.00.46) eta Sergio Riverak (02.24.33).

Bestetik Nafarroa hegoaldean euskara sustatzen duen Agerraldia ekimenak antolatutako Santxikorrota herri lasterketan



Eider Redondo eta Euskadiko selekzioko gainerako kideak. G. REDONDO

## Redondo, Euskadirekin lehian

Ostadar SKTko Eider Redondo Juarezek Euskadiko Selekzioko deia jaso du 16 urtez azpiko Federazioen arteko Espainiako txapelketan lehiatzeko. Hilaren 5ean, Tuteran (Nafarroa) jauzi hirukoitzeko proban parte hartu zuen. Federazio ezberdinetako hemezortzi kide lehiatu ziren eta zortziko finalerako sailkatu zen herritarra 5,15 metroko jauziarekin. Marka hori bera egin zuen azken saiakeran ere eta horri esker, zazpigarren amaitu zuen proba.

korrika ibili ziren herritarrak. Bardeetatik barrena Argueda-seraino bi ibilbide egin zituzten motza (7,28 km.) eta luzea (21,8 km.). Antolakuntza lanetan ere lagundu zuen beste talde batek.

## Probaz proba

Irailean zehar ere pistan edo mendian beste proba batzuetan izan dira lasterka herritarrak.

Irailaren 29an, esate baterako, Josetxo Imaz Memorialean, Laz-

kaon. Bost herritar izan ziren lehian eta 36.41ko markarekin Julen Ormazabal izan zen lehen helmuga igarotzen.

Hil horretako 8an, 25,4 kilometrotako Axari Trailean, Idiazabalaren LOTMEko kide Xabier Aizpurua (02.41.22) 27. postuan izan zen eta egun bat lehenago, Aretxabaletako Ikazkin Traileko proba luzean (21 km.), Xabier Mujika herritarrak (02.09.05) egin zuen.

## Herritarrek, triatloiko denboraldiari agur, podiumetik

Iratiko Triatloian (Zuberoa), Getxoko Triatloian (Bizkaia) zein Zumaiako Triatloian lehen postuetan izan dira herriko kirolariak

## Txintxarri

Lasarte-Oriako triatloi kirolariak podiumetik podiumera agur esan diote lehiaketa denboraldiari. Irailean zehar modalitate ezberdinetako hainbat txapelketetan parte hartu eta euren mailatako lehen postuetan izan dira.

Trinkoko kide Hartz Mitxelena Martikorenak Iratiko triatloia lehiatu zuen irailaren 28an, Iratiko Etxeetan, Larrainen (Zuberoa). Uztailen Alpe DHuezeko distantzia luze triatloia (08.06.59) egin ostean, oraingoan

garaipena eskuratu zuen ibilbide motzeko proban.

Hiru eremuri aurre egin behar izan zioten parte hartzaileek: 750 metroko igeriketa saioa, 21 kilometro eta 600 metroko desnibel positiboko txirringa ibilbidea eta 5 kilometro eta 200 metroko desnibel positiboa duen lasterketa. Guztira 01.16.12 behar izan zituen herritarrak helmugara iritsi eta garaipena erdiesteko.

## Podium gehiago

23 urtez azpiko mailan lehiatzen diren Aimar Sukunza Gomez



Mitzelena, Iratiko Triatloi motzeko podiumeko koska gorenean. IRATIKO TRIATLOIA

eta Ibai Izagirre Agote ere podiumera igo ziren Zumaia eta Getxon; biak Andoaingo Zumea-tarra taldeko kideak dira.

Hilaren 21ean, Zumaiako Sprint Triatloia lehiatu zen. Parte hartzaileek 750 metro igerian, 20

kilometroko bidea txirringan eta 5 kilometro korrika egin behar izan zituzten helmugara iritsi baino lehen. Euskadiko zein Gipuzkoko txapelketak ziren jokoan eta 56.23 markarekin Sukunzak bere mailako bigarren


postua eskuratu zuen Gipuzkoako txapelketan eta hirugarrena Euskadikoan; sailkapen orokorrean, aldiz, hamabosgarren izan zen.

Hilaren 15ean, Getxoko Triatloi Olimpikoan (Bizkaia) Izagirrek hirugarren postua eskuratu zuen maila berean. Igerian 1,5 kilometro, bizikletan 40 kilometro eta 10 kilometro korrika egin ostean, 02.22.21 egin zituen gazteak helmugan.

Bestalde, hilaren 28an, Izagirrek Zarauzko Bikotekako triatloian parte hartu zuen. Nora Landaberea izan zuen bikote eta Lasartearrak izenpean egin zuten proba. Itsasoaren egoeratik ezin izan zuten igeriketako zatia egin eta korrika zein bizikleta eremuetara murriztu zen proba. Lasartearrak bikoak 27.09 egin zuen helmugan.



## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Luka**  
Zorionak Luka!!!  
Tenista, karta jokalaria,  
eskalatzaile... zu bai  
artista!!! 5 urte haundi  
hoiek ospatzeko  
gogotsu gaitzuko  
denok. Askok maite  
zaitugu!



**Manolo**  
Zure emazte eta  
semearen partez,  
zorionak! Orain arte  
bezain guapo  
jarraitu!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri,  
jaioberri edo urteurrena bete duten  
lagunak eta senitartekoak

## Internet

· txintxarri.eus/  
zorionagurrak.  
· Erabiltzaileekin  
sartu/ Erabiltzaile  
ez baduzu izena  
eman.  
· Zehaztutako datan  
argitaratuko da  
webgunean eta  
ostiralean  
paperean.

## Posta elektronikoa

· Mezua bidali  
txintxarri@ttakun.  
eus helbidera, eta  
idatzi: izen-  
abizenak,  
urtebetetze eguna,  
urteurrenaren data  
edo ezkontzaren  
data eta nahi duzun  
testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK  
ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO  
FARMAZIAK

OSTIRALA, 11	DE MIGUEL
LARUNBATA, 12	DE ORUE
IGANDEA, 13	DE ORUE
ASTELEHENA, 14	LASA
ASTEARTEA, 15	GIL
ASTEAZKENA, 16	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 17	KNIESE

**Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08  
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flaquer plaza  
6, Hernani. 943-57 64 77

## 'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)  
com webgunean eskuragarri.

## TELEFONOAK

## UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA:  
943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK:  
943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

## LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

## OHARRAK

Katekesiko izen  
ematea

Lehenengo Jaunartzerako bidea  
egiteko haur katekesi saioak hasi  
dira. Arduradunek jakitera eman  
dute, lehen urtea duten edo saioetan  
parte hartu nahi dutenek hilabete  
honetako ostiraletan San Pedro  
parrokiako bulegoan izena eman  
behar dutela, 18:00etatik 19:00etara.

## 1974ko kintoak

Okendo plazan elkartzeko dira  
1974ko kintoak, hilaren 19an,  
12:00etan. Ondoren, Abend  
garagardotegian bazkalduko  
dute. Hiru Aldetan izena eman  
behar dute 15a baino lehen;  
preziosa, 20 euro.

## ESKUTITZA

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten  
hiritarrek hiru modu dituzte testua  
bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki  
kalea 4, behe), [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)  
helbide elektronikora edo WhatsApp  
bidez, 688 68 35 10 telefonora  
bidaltzea. Idatzia orri hauetan  
publikatua izan dadin, izen-abizenak  
zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

## AZOKA TXIKIA

## ETXEBIZITZA

## SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

## ERRENTAN EMAN

Bi neska gazte gara eta pisukide baten bila gabiltza. Etxea Zabaletako auzoan dago. 200 euro dira logelaren prezioa gehi gastuak aparte. Interesatu bazu de idatzi edo deitu telefono honetara: 663 93 51 76.

## ERRENTAN HARTU

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

## GARAJEA

## ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

## LANA

## ESKARIA

33 urteko gizona lan bila dabil. Taberna, sukaldian, garbiketaria lanak, pertsona adinduak zaintzeko edo edozein lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia handia. Harremanetarako, 695 18 41 79.

## BESTELAKOAK

## SALEROSKETA

Helduentzako trikizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.



**Jaio da!**

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data [txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus) helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

## Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

## Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

## Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943-37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@ttakun.eus](mailto:txintxarri@ttakun.eus)

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.  
Lege Gordailua: SS-513/93  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.300 ale

## Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 Lasarte-Oria  
G-20407557

## Administraria

Nerea Garziarena.

## Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo  
Gonzalez, Maddi Zaldúa eta  
Maitane Aldanondo.

## Publizitatea

Irati Zatarain.

## Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux  
Artetxe, Maitane Rebe, Julen  
Basterra, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

## Banatzaileak:

Egoitz Epelde, Ander Hazas,  
Aimar Hernandez, Nora  
Navarro, Xuban Urdalleta eta  
Nikola Iraola.

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.  
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

## OSTIRALA 11

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Jalgi kafe antzokian jarri ditu ikusgai Maria Jesus Etxeberriak Gipuzkoako zenbait herritan ateratako argazkiak; paisaiak ikus daitezke irudietan. Esposizioa ikustera bertaratu nahi dutenek hilaren 15era arteko epea dute.  
**Jalgi kafe antzokia, 10:00etatik 20:00etara.**

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Egurarekin egindako lanak erakutsiko dituzte. Sarrera doakoa da. Astegunetan, 11:00etatik 13:00etara, eta, asteburuetan, 18:00etatik 20:30era. Bisitatzeko azken eguna hilaren 20a izango da.  
**Antonio Mercero aretoa.**

### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak 21. Aste Kulturala aurrera eramango du. Hau da egun honetarako iragarri duten agitraua:

**18:00etan**, karparen irekiera dantzarako musikarekin.

**19:00etan**, pintxo potea.


**19:30etan**, Semblante Andaluz elkarteak Duende dantza taldearen emanaldia.

**20:00etan**, ohorezko ardoa agintari eta gonbidatuentzat.

**20:30etan**, dantza herrikoia.

**22:00etan**, Overloud bandaren kontzertua.

**Okendo plaza, 18:00etatik aurrera.**



### LASARTE-ORIA Tailerra

Zorione Mendez artistak Animaltzen sormen tailerra antolatu du. 8 eta 10 urte arteko gazteei zuzendutako saioa izango da, eta udal liburutegian aurrera eramango duela iragarri du artistak berak. Doakoa izango da, baina bertan parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute liburutegian berta. Mendezek aurreratu du arriskuan dauden Euskal Herriko animalien gaineko ekimena izango dela.  
**Kultur etxea, 17:30ean.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*Segundo premio* filma emango du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerak, 6 eurotan.  
**Kultur etxea, 20:00etan.**

## LARUNBATA 12

### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak 21. Aste Kulturala aurrera eramango du. Hau da egun honetarako iragarri duten agitraua:

**11:30etan**, bote, toka eta igel txapelketa.

**11:30etan**, haurrentzako jolasak: aurpegi margoketa, minidiskoa eta marrazki lehiaketa.

**12:30etan**, Rosa Rubio idazleak *Un cuento de hadas* para la menopausia liburua aurkeztuko du.

**14:30etan**, bazkari herrikoia.

**17:00etan**, dantza herrikoia.

**18:00etan**, Rumba Flamenca Master Class Amaya Gonzalez Caballeroren eskutik.

**20:30etan**, Dame Veneno taldearen kontzertua.  
**Okendo plaza, 11:30etik aurrera.**

### LASARTE-ORIA Musika

Abelardo Mon Amour Banda Bi taldearen kontzertua. Sarrerak, 6 eurotan.  
**Kultur etxea, 19:00etan.**

## IGANDEA 13

### LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak 21. Aste Kulturala aurrera eramango du. Hau da egun honetarako iragarri duten agitraua:

**11:30etan**, haurren marrazki lehiaketa.

**11:30etan**, bote, toka eta igel txapelketa finala eta sari banaketa.

**12:30etan**, erraldoi eta buruhandiak LOZET elkartearen eskutik.

**13:00etan**, Semblante Andaluz elkarteak Duende dantza taldearen emanaldia.

**14:30etan**, bazkari herrikoia.

**17:00etan**, Fit Gipsy Dance Master Class Lourdes Motiñoren eskutik.

**18:00etan**, dantza herrikoia.

**19:00etan**, Semblante Rociero koruaren emanaldia.

**21:00etan**, 21. Aste Kulturalaren amaiera.

**Okendo plaza, 11:30etik aurrera.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*Gru 4: mi villano favorito* haurrentzako filma proiektatuko dute Sarrerak, 4 eurotan.  
**Kultur etxea, 17:00etan.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*La virgen roja* helduentzako filma proiektatuko dute Sarrerak, 6 eurotan.  
**Kultur etxea, 19:30ean.**

## LARUNBATA 19

### LASARTE-ORIA Topaketa

Egun osoan, herrian barrena, erraldoi topaketa egingo du LOZET elkarteak. Sei talde gonbidatuko ditu.  
**Herrian barrena, 11:00etatik aurrera.**

### LASARTE-ORIA Emanaldia

Semblante Andaluz elkarteak eta FARAE Euskal Herriko Andaluziar Etxeen Federazioak flamenko emanaldi bat egingo dute Maria Rubi artista gonbidatuta. Ikuskizuna aurrera eramango den aretora sartzeko gonbidapena eskatu beharko dute herritarrek, leihatilan.  
**Kultur etxea, 18:00etan.**

## IGANDEA 20

### LASARTE-ORIA Jaia

Euska Jaia aurrera eramango du udalak. Egun osoko egitaraua izango da. Eguraldi txarra egitekotan lekualdatu egingo dute ospakizuna.

**Okendo plaza, 09:00etatik aurrera.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*10 vidas* haurrentzako filma proiektatuko dute Sarrerak, 4 eurotan.  
**Kultur etxea, 17:00etan.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*Bitelchús, bitelchús* helduentzako filma proiektatuko dute Sarrerak, 6 eurotan.  
**Kultur etxea, 19:30ean.**

## ASTEAZKENA 23

### LASARTE-ORIA Jaia

Ihitten Elkarteak Emakume sortzaileen II. jardunaldia antolatu du. *Sorkuntza Memoriatik* izenburupean, hiru emakumeren lanen berri jasoko dute bertaraten direnek. Nagore Legarreta argazkilaria *Ibaia ez da toki bat lana* erakutsiko du, eta Fanny Alonso Collantes eta Maialen Porroy Intxausti diseinatzaileek *Kotoi* proiektuak aurkeztuko dituzte.  
**Mercero aretoa, 18:30ean.**

## OSTIRALA 25

### LASARTE-ORIA Zinema

*Volveréis* filma emango du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerak, 6 eurotan.  
**Kultur etxea, 20:00etan.**

## LARUNBATA 26

### LASARTE-ORIA Emanaldia

Haatik konpainiak *Ur bizitan* emanaldia eskainiko du. Sarrerak 6 euro balio dute.  
**Kultur etxea, 20:00etan.**


## IGANDEA 27

### LASARTE-ORIA Zinema

*Transformers One* haurrentzako filma proiektatuko dute Sarrerak, 4 eurotan.  
**Kultur etxea, 17:00etan.**

### LASARTE-ORIA Zinema

*El 47* helduentzako filma proiektatuko dute Sarrerak, 6 eurotan.  
**Kultur etxea, 19:30ean.**



batu  
txintxarri  
kanalera!







Ezagutu zure herrian dauden taldeak edo egin zure proposamena!

**solaskide**

**Eta euskaraz egiten badugu?**

**Eman izena urriaren 25 baino lehen:**  
Ttakun Kultur Elkarte | LASARTE-ORIA  
kultura@ttakun.eus 943-37 14 48 • 695 78 53 89




**Kroseko zenbaki bereziak urriaren 25ean eta 31n txintxarri**

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?

**Deskontu bereziak herrikoentzat!**



**Eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66**

*Lasarte-Oria Bai!*

# LEHIAKETA

## Lasarte-Oriako Toponimia

### 20 GALDERA + ERRONKA

**URRIAK 14-20 (10 galdera)**



**URRIAK 21-27 (10 galdera)**

**URRIAK 28 AZAROAK 3 Erronka**

**2 SARI**

**2 PERTSONENTZAT LANDETXE BATEAN GAU BAT**

**2 PERTSONENTZAT MENU BEREZIA**

